

Txotxaren aitzindariak, 'Sagardogile' liburuan

19 EKOIZLE BETERANOEN
TESTIGANTZAK JASO DITU,
SEKTOREA INDARTU ETA
MODERNIZATU DUTENAK

Sagardogile izenpean, Joxemi Sazarrek (testuak) eta Joseba Urretabizkaiak (argazkiak) 19 sagardogile beteranoren testigantza jaso dute. Lan honetan 65 urtetik gora dituzten ekoizleak bildu dituzte, duela 40 urte inguru galtzear zegoen tradizioa berreskuratu, indartu eta modernizatu dutenak azken hamarkadetan.

Berreskuratze prozesu horren bilakaera azaltzen du liburu honek, alegia: nola zabaldu zituzten sagardotegiak, txotx garaiak ezagutu zuen gorakada, instalazioen handitzea, hozte sistema sartzea, elaborazioa eta botilartzea mekanizatzea, ekoizpenean egin diren hobekuntzak, higie-ne eta osasun aldetik egindako aurrerapenak, komertzializazioaren zabalkundea, etabar. 19 pertsona horiek egindako lanari esker, datozen belaunaldiak jarraitzen dutena, sagardoaren kalitatea hobetzea eta ekoizpena handitzea lortu dutela aitortzen da.

Liburuaren protagonistak

Aburuza, Altzueta, Begiristain, Bereziartua, Calonge, Eguzkitza, Elorrabi, Etxe zuri, Eula, Gurutzeta, Iruin Astiazaran, Isastegi, Itxas-Buru, Oiarbide, Oatza, Petritegi, Txindurri iturri, Zapiain eta Zelaia sagardotegietako ordezkarien iritziak eta argazkiak dira liburu honetan jaso direnak, gaur egun gure artean ez dauden askoz gehiago ere izan zirela jakinda.

Euskal sagardo naturala kalitatezko edari izatea lortu dutenei dagokien merezimendua aitortzea izan da helburua, erakundeen laguntza ahaztu gabe. Artisau produktu tradizional izatetik ekoizpen modernoa izatera egindako ibilbidea zehazten du. Euskal Herriko sagarra eta jatorrizko izendapenaren aldeko apustua ere jasotzen du lan honek.

Emakumearen paperari dagokionez, elkarrizketatutako 19 pertsonetatik 18 gizonezko eta emakume bat baino ez zegoen. "Emakumeak betidanik egon dira sagardotegian, baina orain dela urte gutxi arte ez dute behar zuten protagonismo-rik izan", aitortu du liburuaren idazleak. ■ J. G.



'Sagardogile' liburuaren aurkezpena, joan den urrian. JAVI COLMENERO



Astigarragako Udala

Astigarraga,
sagardoaren lurraldea